

AGERTUZ JOLAS ARAUAK

Jolasak Ager zonaldeko **herri** (12 karta) eta bertan ekoizten diren **barazki eta fruituen** (24 karta) irudiak dituzten kartaz osatua dago, honetaz gain, **4 urtaroak** adierazten dituzten beste 16 karta daude (hauek karta banaketaz aparte geratzen dira), eta **2 komodin** karta.

1. Aukera:

A) 4-5 urtetik aurrera, "memori" gisa jolas liteke, fruitu eta barazkiak buruz behera jarri eta bikoteak altxatuz.

B) Baita ere, esku jolas gisa. Lau karta banatu jokalaria bakoitzari, bat buruz gora eta gainontzeko kartak erdian utziz buruz behera. Jokalariak bikoteak eskuan dituzten kartekin osatu beharko dituzte, goraka dagoena edo buruz behera doana zein hartzea komeni zaien erabakiz. Txanda pasatzerakoan lau karta izango dituzte eskuetan, bikotea egitea lortzean, erdiko pilatik jasoko dituzte beste bi karta (lau osatu arte). Bikote guztiak osatzean bukatuko da jolasa. Bikote kopuru handiena duenak puxtarri bat jasoko du.



2. Aukera:

8 urtetik 99 urte bitartekoak. Jolasteko prestaketa eta pausoak:

Bi pila egingo ditugu, 1- urtaroak, 2- beste karta guztiak komodinak barne.

Jolasa hasteko, jokalaria bakoitzari 4 karta banatuko zaizkio (2. karta pila horretatik). Buruz gora mahai erdian beste 4 karta bat jarriko dira (1. Karta pila horretatik), hau da, 4 urtaro karta. Geratzen diren beste urtaro karta guztiak ondoan buruz behera.



AGERTUZ JOLAS ARAUAK

Jolasaren helburua: urteko 4 Urtaro karta desberdinak lortzea (negu, udaberri, uda eta udazken karta bana edo gehiago lortzea).

Nola lortu urtaro karta bat?

***Herriak:** herri karta baten lehenengo hizkia, urtaro karta baten goiko hizkiaren berdina bada, urtaro karta lortu daiteke.

***Produktuak:** urtaro karta batean agertzen diren produktu guztien kartak baldin baditugu, urtaroa lortu daiteke.

***Komodinak:** 2 komodin karta daude (Agerraldi eta Errigorako logoekin). Edozein fruitu edo barazki gisa balio du, beraz komodina eta beste 3 fruita edo barazkiekin, urtaroa jasoko du jokalaria.

Hau da:

Urtaroak A letra badu, eta jokalaria, Azkoien herriri dagokion karta badu eskuartean, zuzenean, kartaren beheko produktuak pilatu gabe jaso ahalko du. Beste aukera, urtaro kartak duten 4 barazki eta fruituen kartak batzen saiatuko da urtaroaren karta jasotzeko. Urtaro bat jokalaria bereganatzen duenean, beste urtaro bat pilatik buruz gora jarriko da erdian besteekin batera.

Mahai gaineko urtaroa jasotzeko BEHARREZKO OBJETUAK EZ BADITU, jokalaria erdiko karta pilotik karta berri bat hartu, eta bere eskuko karta bat baztertu eta baztertze-piloan jarri txanda pasako dio hurrengo jokalaria. Jasotzeko dauden karten pila agortzen bada, baztertzeo pilotik ateratakoak berriro nahasiko dira, pila berri bat osatzeko, jokoak jarrai dezan urtaro guztiak mahaitik desagertu arte. Jokalari bakoitzaren txanda hasieran, jokalaria 4 karta izan beharko ditu eskuan. Gutxiago baldin baditu, 4 izateraino kartak lapurtu beharko ditu. Txanda hasieran 4 karta baldin baditu, aurretik azaldu den moduan, hauetako bat baztertu eta berri bat hartzeko aukera izango du.

Jokoaren amaiera:

Jokalariak urtaroen karta guztiak harrapatu dituztenean amaitzen da. Momentu honetan abenturazale bakoitzaren azken puntuazioaren kalkulua egiten da. 4 urtaro desberdinak 25 puntu, urtaro solte bakoitzak 5 puntu, urtaro berdina errepikatua badu jokalaria batek, 3 puntu jasoko ditu urtaro errepikatu bakoitzarengatik. Puntu baturak emango digu irabazlea.

Informazio gehiago
Instrucciones en castellano y
francés

<https://labur.eus/agertuz>



AGERTUZ JOLASAREN
MARRAZKILARIA:
Maria Lozano Beorlegi
@maria.beorlegi